

EAEko

hizkuntza-politika
garatzeko



13 proposamen



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA



Sarrera

Azken hiru hamarkadetan EAEn abian jarri diren hizkuntza-politiken eraginez eta herri ekimenari esker egin diren urratsak ukaezinak badira ere, oraindik urrun bizi dugu euskaldunok euskararen normalizazioa, hau da, erosotasunez geure bizitza euskaraz egunero egin ahal izatea. Gure hizkuntzaren normalizazio-prozesuak une erabakigarriak bizi ditu azken bolada honetan, faktore batzuek (kaleko erabilerak, arnaguneen garapenak...) moteltze kezkarria erakusten baitute.

Horregatik, ezinbestekoa da orain artekoak baino pauso sendoagoak egitea eta euskararen ezagutza eta erabilera gizarte-eremu guztietara hedatzeko neurri eraginkorrak hartzea. Hori ez egiteak euskarari dagozkion eremuak berreskuratzeko erritmoa moteldu ez ezik, lortutakoak ahultzea eta arriskuan jartzea ere ekar bailezake.

Etorkizunari begira jarrita, EAEko herritarrok euskaraz bizi ahal izateko bidean urratsak egiteko hizkuntza-politika aldatu beharra dago. Hiru hamarkada joan dira euskara hizkuntza ofizial izendatu zenetik, eta 1982an jaiotako herritarrak, egun, zailtasunak ditu bere bizimodua euskaraz eratzeko. Ordutik hona, milaka dira euskara ikasi duten herritarrak, euskaraz hezi direnak eta euskaraz bizitzea erabaki duten herritarrak,

baina gizarte bizitza ez da euskaraz, oro har, oztopo ugari eta kontrakotasunak topatzen dituztelako hautu hori egiten duten herritarrek. Hartara, gure biztanleen zati handi bat Euskararen Legearen belaunaldikoa da, baina oraindik ezin da euskaraz bizi. Horrexegatik, hain zuzen ere, hurrengo legegintzaldia epeak zehazten hasteko garaia dela uste dugu. Euskaraz bizi ahal izateko baldintza juridiko, politiko eta ekonomikoetan tempusak zehaztu behar dira, euskararen Legearekin batera eta ondoren datozen milaka euskaldunok euskaraz bizi daitezen.

Normalizazioa prozesua da, eta prozesu guztiek hasiera zein amaiera behar dute. Hizkuntzaren normalizazio-prozesuari epeak jartzeko garaia heldu dela uste dugu. Arestian esan bezala, belaunaldi osoa joan da EAEn euskara ofizial izendatu zenetik, eta ezin bizi gaitezke etengabeko arian-arian edota progresibotasun kiribilean.

Eta eskuartean duzun honako dokumentu honek bide horretan lagundu nahi du hainbat proposamenen bidez. Proposamenak ez dira, ordea, dokumentu honetan hasi eta agortzen. Besteak beste kontuan

“EAEn abian jarri diren hizkuntza-politiken eraginez eta herri ekimenari esker egin diren urratsak ukaezinak badira ere, ezinbestekoa da orain artekoak baino pauso sendoagoak egitea_____”





“Gure biztanleen zati handi bat Euskararen Legearen belaunaldikoa da, baina oraindik ezin da euskaraz bizi. Horrexegatik, hain zuzen ere, hurrengo legegintzaldia epeak zehazten hasteko garaia dela uste dugu_____”

hartu beharreko erreferentzia ezagutza emango baita hilabete gutxiren buruan: Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa, hain zuzen. Gogoratu behar da protokolo hori Europako hizkuntza gutxiagotu

guztietako gizarte eragileen ekarpenen bidez osatzen ari dela.

Euskal Herrian bertan ere, Protokoloak hizkuntza arlo anitzetako (irakaskuntza, lan-mundua, hedabideak, aisialdia...) gizarte eragileen ekarpena bildua du dagoeneko. Hortaz, dokumentu honen osagarritzat hartu beharko da abenduaren 17an aurkeztuko den Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa.

Dokumentu honen aurrekari gisa berriz, Kontseiluak landutako *Hizkuntza-politika indartu eta garatzeko hamar proposamen* dokumentua eta *Hizkuntza Politika Berri Eraginkorra* dokumentuak koka ditzakegu.

4

“Dokumentu honek bide horretan lagundu nahi du hainbat proposamenen bidez. Proposamenak ez dira, ordea, dokumentu honetan hasi eta agortzen. Kontuan hartu beharreko erreferentzia ezagutza emango da hilabete gutxiren buruan: Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa_____”

Horien oinordeko izan genuen Nafarroako hauteskundeetan aurkeztu genuen eta hamahiru proposamen jasotzen zituen dokumentua ere.

Orduan bezala, oraingoan ere, alderdiei aurkeztu dizkiegu hurrengo legegintzaldiko



hizkuntza-politika garatzeko aintzat hartu beharreko hamahiru proposamen. Nafarroan, gobernu osatzeko alderdien arteko negoziazioak eman zirenean, jakin badakigu proposamen hauek presente izan zirela.

Eusko Legebiltzarrean ere, gobernu osatzeko alderdien arteko negoziazioak egongo direla jakinik, horietan, mahai gainean izan ditzaten, proposamenak aurkeztu dizkiegu, 2016-2020 legegintzaldia hizkuntza eskubideak bermatzeko bidean urrats erabakigarriak emateko legegintzaldia izan dadin.



EAEko hizkuntza-politika garatzeko hamahiru proposamen:

1. Hezkuntza sistemak belaunaldi berriak euskalduntzea

Duela mende laurden baino gehiago indarrean jarritako eredu-sistema askieza da. Hori hobetzeko, abiapuntu egokia eskaintzen du Kontseiluak hezkuntza arloko bere bazkideekin osatu eta adostutako *Ikasle Euskaldun Eleanitzak Sortzen* dokumentuarekin.

Duela mende-laurden baino gehiago indarrean ezarritako eredu-sistemak bide luzea egin du, eta hasiera hartako egoerari aurre egiteko baliagarria gertatu bazen ere, azken urteotan behin eta berriz esan izan dugu askieza dela. Gizartearen gehiengoak gero eta garbiago ikusten du gainditu egin behar dela. Emaizten ebaluazioak nabarmen erakutsi du A eta B ereduak desegokiak direla eta D eredu bera ere zenbait kasutan egoki euskalduntzeko askieza gertatzen dela.

LOMCEren mehatxua eta hezkuntza lege berri bat (Heziberri) eztabaidagai izan den legegintzaldi honetan, argi geratu da hezkuntza arloko eragile eta sindikatu nagusiak bat datozela hezkuntza-sistemaren barruko ikasle guztiak hamasei urte betetzean euskararen jabe izan daitezen ikastetxe bakoitzaren egoeraren eta autonomiaren baitan egokituko den irakasteredu egokia ezarri behar dela. Horretarako, beharrezko birmoldaketak egin eta behar besteko baliabideak eskaini beharko dira. Bide horretan, abiapuntu egokia eskaintzen du Kontseiluak hezkuntza arloko bere bazkideekin osatu eta adostutako *Ikasle Euskaldun Eleanitzak Sortzen* dokumentuarekin.

2. Euskarari estatus egokia eskaintzea: berezkoa, lehentasunezkoa eta ezagutu beharrekoa

Corpus juridikoaren gailurrean kokatzen diren legeek euskara berezkoa, lehentasunezkoa eta ezagutu beharrekoa izendatzea beharrezkoa da.





Berezkoak esan nahi du lurralde honetan bakarrik dagoena dela antzinako garaietatik eta hemen galtzen bada mundu osoarentzat galduko dela. Lehentasunezkoak esan nahi du diskriminazio positiboaren bidez gai izan behar duela dagoen egoera zaila gainditzeko eta beste hizkuntzen parean lehiakide izateko. Ezagutu beharrekoak esan nahi du modu iraunkorrean bizi nahi duenak ezagutu beharko duela eta administrazioak horretarako bitartekoak jarriko dituela, bertoko hizkuntza ofiziala delako.

3. Gobernuaren egituraren gailurrean kokatzea euskara saila

Euskararen normalizazioak zeharkako izaera du eta ondorioz, gobernuak izaera hori garatzeko egiturarik egokiena den lehendakariordetza sortzea da bidea.

Euskarari behar besteko bultzada eman nahi bazaio, gobernuak sail guztietan

4. Administrazioa euskalduntzea

Hurrengo legegintzaldian herritarrei zerbitzu guztiak euskaraz eskaintzera iritsi behar dugu. Horrekin batera, euskaldunek euskaraz lan egiteko eskubidea bermatu behar da. Azkenik, kontratazio berri guztietan lanpostuari dagokion euskara ezagutza ezinbestekoa izatea nahitaezkoa da.

Administrazioaren euskalduntzea erabakigarria da euskararen normalizaziorako eta herritarren hizkuntza-eskubideen bermerako, eta hori esatean berau osatzen duten sail guztiak hartu behar dira kontuan, inolako salbuespenik gabe. Zoritxarrez, gaur-gaurkoz, badirudi gobernuetako sail jakin batzuen bizkar bakarrik dagoela euskararen normalizazioa eta beste zenbait salbuetsita daudela. Bide horretan, hurrengo legegintzaldian, hizkuntza-eskubideak osoki bermatze aldera, herritarrei zerbitzu guztiak euskaraz eskaintzera iritsi beharko litzateke.



eragin beharko da eta hori lehendakari zatik bakarrik egin daitekeen zerbait da. Izan ere, gaur eguneko sail baten barruan egotea ez da kokagunerik egokiena bere egin beharrak betetzeko eta ez du behar bezala irudikatzen euskarak izan beharko lukeen garrantzia ere.

Horrekin batera, euskaldunek euskaraz lan egiteko eskubidea bermatu beharko litzateke, besteak beste, arduradun politikoak bide horretan oztupo ez izateko, euskalduntzeko urratsak eginez. Azkenik, heldu da garaia kontratazio berri guztietan lanpostuari dagokion euskararen ezagutza ezinbestekoa izan dadin.



identifikatzen laguntzeko plan estrategikoa garatu behar da. Plan horretan arlo sozioekonomikoko eragile desberdinek (administrazioa, enpresa traktoreak, sindikatuak, kontsumitzaileen ordezkariak, euskalgintza...) parte hartu beharko lukete.

6. Helduen euskalduntzea

Doakotasunera iristeko bideak jarri behar dira. Ikasten ari dena saritu eta horretarako denbora ere eman behar zaio. Administrazioak eta herri mugimenduek motibazio-kanpainak egin behar dituzte elkarlanean.

Helduen euskalduntzearen alorrean plangintza orokorra egin behar da herritar guztiek euskararen ezagutza egokia eskura dezaten. Bestalde, garrantzitsua da bertoko hizkuntza ikasten ari denari bidea erraztea: doakotasunera iristeko bideak jarri behar dira, ikasten ari dena saritu egin behar da eta horretarako denbora eman behar zaio.

Administrazioak motibazioa lantzeko kanpainak egin behar ditu herri mugimenduarekin elkarlanean eta administrazioak berak eredu izan behar du, erabilguneak sustatu behar dira.



Haur-gazteen eta helduen artean euskalduntzeari dagokionez gertatzen ari dena aztertzen denean egoera kontraesanezkoa dela nabarmen ageri da. Alde batetik, ahaleginak egiten diren arren, gaur egungo irakastereduen erruz milaka gazte behar bezala euskaldundu gabe gizarteratzen dira eskola-aroaren amaieran, eta urte batzuk geroago, gazte horiek beroriek euskara beharrezkoa duten lanpostuak eskuratu nahi badituzte, beren dirutik ordainduz ikasi behar izaten dute.

7. Hedabideak euskalduntzea

Euskarazko hedabideak egoki babestu eta elikatu behar dira. EAEn diharduten komunikabide guztien jarduna aztertu eta kuotak lege ezartzea erabaki behar da. Azkenik, EITBk euskararen eta euskal kulturaren sustapenerako tresna eragingarria izan behar du.

Euskarazko hedabideei dagokienez, horiek egoki babestu eta elikatu behar dira diru laguntza nahikoak eskainiz, hitzarmenen bidez, lege espazioak



eta lizentziak gordez eta publizitate instituzionalaren banaketan kontuan hartuz. Horrela, euskarazko hedabideetan jartzen den publizitate instituzionalean jauzia egin beharko da, kopuru ekitatiboetan (%50) edo proaktiboetan (%60).

Modu berean EAEn diharduten komunikabide guztien, nola idatzizkoen hala elektronikoen zein ikus-entzunezkoen, jarduna azertu eta kuota batzuk lege ezartzea erabaki behar da, are gehiago, instituzio edo administrazio publikoetatik ezelango zuzeneko edo zeharkako laguntzak jasotzen dituztenetan. Bestela, gaurko egoerak alor batzuetan neke handiz lortzen den aurrerapena beste eremu batzuetako kontra-jardunaren eraginez galgatzea baitakar.

Bestalde, hurrengo legegintzaldian EITBren etorkizuneko planteamendu berria abian jarri beharko litzateke, euskararen eta euskal kulturaren sustapenerako tresna eragingarri gisa.



8. Euskararen aurrekontua handitzea

Aurrekontu osoaren %2, gutxienez, normalizaziora esleitu behar da. Normalizazioak norbanako eta gizarte eragileei sortzen dizkien ahalegin eta inbertsioak arintzeko zerga kenketak eta erraztasun ekonomikoak ezarri behar dira.

Hizkuntza-politikari bultzada indartsu bat eman nahi bazaio diru baliabideak nabarmen handitu behar dira. Hori lortzeko honako hiru puntuok aintzat hartzea beharrezkoa izan daiteke:

- Normalizazio-prozesuak norbanakoei eta gizarte eragileei sortzen dizkien ahalegin eta inbertsio ekonomikoak arintzeko zerga kenketak ezartzea.
- Diru laguntza politika eraginkorra izateko aurrekontu osoaren %2, gutxienez, normalizaziora esleitu, eta euskalgintzako zein gizarteko eragileekin adostea.
- Euskalgintzarentzat kreditu bigunak emateko laguntzak, enpresa-kreditu finantziatuak, enplegua sortzeko laguntzak, fondo galduko kredituak, azpiegiturak sortzeko laguntzak, teknologia berriak inplementatzeko laguntzak eta abar sortzea. Era berean, euskararen sustapena Balio Erantsiaren Zergaz salbuestea beharrezkoa da.

9. Unibertsitatea eta Lanbide Heziketa euskalduntzea

Ahalegin eta baliabide gehiago bideratu behar dira unibertsitateko gradu-ikasketa guztiak euskaraz ikasi ahal izateko eta Lanbide Heziketaren eskaintza osorik euskalduntzeko.



Orain arte baino ahalegin eta baliabide gehiago bideratu behar dira unibertsitateetan falta diren gradu-ikasketak euskaraz ikasteko aukerak sortzeko eta Lanbide Heziketaren eskaintza osorik euskalduntzeko. Bestetik, Lanbide Heziketako praktikak euskaraz egitea ahalbidetzen duten enpresei abantaila fiskalak eskaini behar litzaizkieke.

Hartara, plangintza estrategikoa egin behar da, administrazioen, enpresen, sindikatuen eta hezkuntzako eragileen parte-hartzearekin, gure gizarteak hurrengo hamabost urteotan beharko dituen profesional berriak euskaldunak izan daitezen, eta lan arlora iritsi berriak diren belaunaldi euskaldunei lanerako esparru euskalduna eskaintzeko.

10. Kultur sistema sustatzea

Euskarazko kulturgintza babestu eta sustatu egin behar da, baita kultur jardueri kuota sistema ezarri ere.

Kultur sistema osasuntsu baten beharra dago eta hori ere hizkuntza-politikaren helburua da. Kultur politiketan hizkuntzak gune zentrala edukitzeaz gain, euskarazko kulturgintza babestu eta nabarmen sustatuko da eta kultur jardueri kuota sistema ezarriko zaie.

11. Aisialdia euskalduntzea

Aisialdia euskaldundu behar da finantzazioaren bitartez, euskarazko eskaintza bermatuz eta kuotak ezarriz.

Aisialdiari dagokionez, esan behar da hizkuntza-politika egoki batek horiek euskalduntzeko helburua izan behar duela. Horrela, kirola, eskolaz kanpoko eskaintza, gazteen aisialdia eta helduena etab. euskalduntzeari begirako lana indartuko da finantzazioaren bitartez, euskarazko eskaintza bermatuz eta kuotak ezarriz.

Mintzapraktika sustatzeko ekimenak bereziki lagunduko dira.

12. Arnasguneak garatzea

Besteak beste, arnasgune geografiko eta funtzionalen garapenerako berariazko legea behar da, baita haien hedapenerako bide-orria izango den Euskararen Lurralde Plan Sektoriala ere.

Euskararen normalizazioak honen hedapen geografikoa eta funtzionala eskatzen du. Horretan beraz, zeresan berezia dute arnasguneek. Izan ere,





arnasguneen garapena eta hedapena da biderik sendoena aurrera egiteko.

Horretarako, arnagune geografiko eta funtzionalen garapenerako, berariazko legea osatu beharko da. Horrekin batera, arnagune geografikoen eta funtzionalen hedapenerako bide-orria izango den Euskararen Lurralde Plan Sektoriala egin beharko da. Azkenik, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 legean jaso den bidetik, arnaguneen egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektuak edo plangintzak onesteko prozeduran Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa (ELE) eta horren araberrako egokitze-neurriak aplikatzeko prozedura jasoko dituzten dekretuak garatu behar lirateke.

eskubideak bermatu nahi dituen, Euskal Herriko eremu osoan aplikatzeko modukoa eta ikuspegi osokoa, eta euskararen erabilera normalizatua helburu duena.

- Administrazio guztien arteko koordinazio organoa sortu behar da.
- Osagarritasuna bilatu behar da, herri-mugimenduak sortzen dituen proiektuekin indarrak metatzea helburu.
- Euskalgintzako agenteekin elkarlan iraunkorra ezarri behar da.

Aipaturiko baldintza horiek beteko dituen politika behar da gizartean dauden baliabide mugatuak ahalik eta ongien ustiatu eta era koordinatuan normalizazioak eskatzen duen helburua lortzeko.

13. Hizkuntza-politika egokia izatea

Epe eta helburu zehatzak dituen, bitartekoduna, sail artekoa, gizarteko sektore guztietara iristeko modukoa, Administrazio Nagusitik Toki Administrazioarainokoa, hizkuntza-eskubideak bermatu nahi dituen, Euskal Herriko eremu osoan aplikatzeko modukoa eta ikuspegi osokoa, eta euskararen erabilera normalizatua helburu duena behar du izan hizkuntza-politikak.

Andoainen, 2016ko irailean

Hizkuntza-politika egokia abiatzea ezinbestekoa da orain arte aipatutako puntuen bidetik euskararen normalizazioa lortu nahi bada. Kontseiluaren aburuz, egokitasun horren jabe den hizkuntza-politikak honelakoa izan behar du:

- Epe eta helburu zehatzak dituen, bitartekoz hornitua, sail artekoa, gizarteko sektore guztietara iristeko modukoa, Administrazio Nagusitik Toki Administrazioarainokoa, hizkuntza-



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA

www.kontseilua.eus



facebook.com/kontseilua



[@kontseilua](https://twitter.com/kontseilua)



kontseilua@kontseilua.eus